

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2011ko irailaren 27a. VIII. urtea. 2.279. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Jende asko bildu zen herenegun Ibarra, Asteasu eta Alegiako azoketan. Goiatzen ere egin zuten, eta bertan tortila lehiaketa ere egin zuten. S. GOMEZ

Bertako produktuak nonahi

Asteburu honetan Belauntzan egingo duten azokari Ibarra, Asteasu, Alegia eta Goiatzen egindakoek ireki diote atea; jende asko bildu zen herenegun lau herrietan

Ibarrako lehiaketetan Zubillagak eta Olanok, eta Mendizabalek eta Ijurkok irabazi zuten, eta Asteasun arroz esne onena Ormazabalek eta Elizegik egin zuten **4**

Jon Erguin beasaindarrak irabazi du Ibarrako I. Mendi Duatloia

Luis Mari Urizar billabonatarak egin zuen bigarren; Euskal Herri mailako mendi duatloi zirkuituaren lehen proba izan da **6**

Antonio Alustiza
Artzain Zakur Txapelketako irabazlea

«Lana eginez gero, ikusten da posible dela berriz irabaztea»

Aresoarrak Oñatin izandako lehiaketa irabazi du 'Txiki' zakurrarekin; iaz ere berak irabazi zuen

Elkarrizketa 7

EAJren ustez Tolosako Udalak proiektu estrategikoak gelditu ditu

Alderdi jeltzaleak udalaren lehen 100 egunetako balorazioa egin du; zinegotzien hitzetan Bilduk ez du ezer berria eskaini **2**

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com



EAJ: «Partehartzea defendatzen duen Bilduk badu zer hobetua»

Tolosako Udalaren txostenaren harira, EAJko zinegotziek udalaren 100 egunen balorazioa egin dute

Enertiz Maiz Tolosa

Tolosako EAJ alderdiko zinegotziek, udalaren 100 eguneko balorazioa egin dute. Jokin Bildarratz ezik, gainontzeko zinegotzi guztiak Zerkausion elkartu ziren horretarako. Bilduren aurrera begirako programan «ezer gutxi dagoela berria» adierazi zuten. EAJaren agerraldia, Bilduk pasa den astean egin zuten batzarren harira etorri da.

Hasieratik garbi utzi zuten ez zaiela egokia iruditu Bilduk jarraitu duen prozedura. Hauteskundeak irabazi ostean, legegaldiko programa idatzi zuten, eta horixe bera «zehaztu» besterik ez dutela egin esan zuten zinegotziek: «Txostena amaitu, borobildu eta gizarteratu dute». «Gonbidapen zabalak egin zuten eta guri ere, tolosar guztiei bezala, txostena eman zaigu. Baina horren inguruan ez da inolako eztabaidarik eman», azpimarratu zuten.

Eztabaidatzeko eta proiektuak adosteko, udalean foroak eta batzorde informatzaileak daudela gogorarazi zuten, eta «hori ez dela eman», argitu zuten. «Partaide-tza eta gardentasuna aldarrikatzen duen alderdi batek era horretan jokatzeko ez zaigu iruditzen zilegi denik, eta badutela zer hobetua uste dugun», esan zuten EAJko zinegotziek.

«Anbizio falta»

Txostena irakurri ostean, atera duten lehen ondorioa da, «magusiki lehendik dauden proiektuen jarraipena» egin dutela. Egindakoen artean «normala dela adierazi zuten» «ia guztiak, lehendik abian zeudenak dira». Aurrera begira eta epe ertainean planteatzen diren proposamen gehienak, «abian jarritako proiektuak dira», azaldu zuten.



EAJko zinegotziak Zerkausion elkartu ziren udaleko 100 egunen balorazioa egiteko. E. MAIZ

tzen diren proposamen gehienak, «abian jarritako proiektuak dira», azaldu zuten.

Berritasunak ere badaudela adierazi zuten: «EAJk martxan jarritako zenbait proiektu gelditu egin dituzte. Berritasun handiena, proiektu estrategiko eta inportanteak gelditu egin dituztela izan da».

Bilduk aurkeztu duen programari «anbizioa falta» zaiola azpimarratu zuten, eta «ez dugu ikusten esku artean tolosarrei ilusioa emango dien proiekturik dutenik». Orokorrean, proiektu berrien falta dagoela adierazi zuten, eta, «garai txarretan anbizio gehiago behar da», azpimarratu zuten.

Zorpetzearen zergatia

Krisi kontuak aipatuta, auditoria egina dagoela esan zuten; udalak urtero egiten baitu kanpo auditoria. Argi utzi zuten, aurrekontuak «errealitateari begiratuta» eginda daudela, eta ez direla «fikziozkoak».

Honekin gogoratu nahi zuten, kanpainaurrean askotan entzun zela EAJk arduragabekeriaz jokatu zuela, eta gezurra esanez ibili zela, baina oraingoa ikusita «esan behar da udalbatza berriak uztailan auditoria ikusi ahal

izan zuela, eta azterketa egiteko aukera izan duela», aldarrikatu zuten.

Bestetik, udalaren egoeraren zenbait datu ez direla zuzenak esan zuten, eta Foru Aldundiak argitaratu duen udal gidan agertzen direla ere azaldu zuten: «Tolosako Udalaren zorpetze maila %6,20koa da, hau da, Gipuzkoako herrien batzbestekoaren antzekoa da (%5,99), eta ez %16koa, hasiera batean esan zen bezala».

Zorpetzearen zergatia ere argitu nahi izan zuten: «Usabalgo kiroldegia datorki. Hogeita lau milioi euro kostua zen, eta gaur egun 12 milioiko zorra du, beste zor batzuen artean. Epe luzearako zorra da. Baina gu oso arto gaude Usabalgo kiroldegiaekin. Ez dago horrelako azpiegiturarik ez Gipuzkoan, ez eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Eta gainera, ez dago udalerririk, non bere biztanleriaren %30a bazkide dutenik».

Bilduren txostenak krisialdiaren aipua egiten duela diote baina krisialdia, «ez da 2011. urteko kontua», 2007. urtetik datorrela gogoratu zuten, eta udala ez dela geldirik egon behar ere azpimarratu zuten. «Krisiak ilusioa pizten duten gauzak egin behar ez direnik ez du esan nahi, bideragarriak diren neurrian gauzak aurrera ateratu behar dira», azaldu zuten.

«Zumalakarregi kalea, Musika Eskola, Topic, Euskal Herria plaza, Gernikako Arbola martxan jarri dugu, Lehiberri oso osorik kanpo finantzazioarekin abian da, ... badago zer egin eta dirua biltzea estrategikoa da», gaineratu zuten. Diru laguntzak lortzeko saiakera gehiago egin behar direla azaldu zuten, eta «proiektuak bideragarriak direnean, maila guztiak eskatu behar badira, eskatu egin behar dira».

Hutsuneak programan

Bilduk aurkeztutako programan ikusi dituzten hutsuneak ere azpimarratu zituzten. Enpleguaren sustapena egiteko, esaterako, «ez da lantzen enplegu programa sakon bat, eta langabetuak lanposturatzeko beharrezkoa den etengabe prestakuntza programarik ere ez da zehazten». Bestetik, landa auzoetarako azpiegitura falta ikusi dute; «Landa auzoak ia guztiz ahaztu egin dira. Urkizuko, Bedaioko, Aldabako eta Montezkuko azpiegituren planik ez da aipatu ere egiten, eta harrigarria iruditzen zaigu».

Bukatze, urte anitzeko finantza planaren inguruan aritu ziren. EAJk aurrekontuak elkarlanean burutzeko eskatuz uztailan Bilduri eskutitza bidali ziotela argitu zuten, eta oraindik erantzunik ez dutela jaso salatu.

→ Laburrak

Gudari eguneko ekitaldiak Laskorain ikastolan

TOLOSA » Laskorain ikastolan hainbat ekitaldi izango dira gaur, 12:00etatik 13:30era, Gudari eguna dela eta. Besteak beste, dantza eta bertso saioak izango dira. Ikasleei bertan parte hartzeko deia luzatu diete.

Tozal de Guara eta Peña Canciasera Oargitiki

TOLOSA » Oargi Mendi Elkartek urriaren 1 eta 2rako irteera antolatu du. Hilaren 30an aterako dira Guille herrira bertan lo egiteko. Larunbatean, 8 orduko ibilbidea eginez Tozal de Guara igoko dira. Igandean, Peña Cancias mendia igoko dute. Izena info@oargi.org helbidera idatziz edo 688 698 642 telefonora deituz eman behar da.

Gaur 18:00etan, Euskal Jaia antolatzen bilerak

ANOETA » Urriaren 8an izango den Euskal Jaia antolatzen ari dira anoetarrek, eta gaur, hilak 27, bilera egingo dute. 18:00etan udaletxean elkartuko dira, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Euskal Jaiako bazkarirako txartelak salgai daude

IKAZTEGIETA » Bi urtez behin ospatzen dute ikaztegieta Euskal Jaia. Aurten urriaren 8an, larunbatean, izango da, eta egun osoko festa antolatu dute. Txekorra burrunztan erreko dute, eta txartelak salgai daude Toki-Alai eta Ostatu tabernetan. Txartela 25 euro ordaindu behar da, eta langabetu edo ikasleek 20 eurotan izango dute. Errostea azken eguna hilak 30 izango da.

Bihar da kirolean izen emateko azken eguna

IKAZTEGIETA » Ikaztegieta Udalak aerobik, pilates edo mantentze gimnasia egiteko aukera eskaini die herritarrei. Horretarako izena eman behar da, eta azken eguna bihar, hilak 28, izango da.

Ohiko osoko bilkura gaur izango da 19:30ean

IBARRA » Gaur 19:30ean ohiko osoko bilkura egingo dute Ibarren. Besteak beste, gai hauek jorratuko dituzte: Ibarako JU 11.2ko udal sustapeneko lau etxebizitza tasatu eta erantsiak esleitzeko baldintza pleguen zuzenketa eta JU 11ko xehetasun estudioaren onarpena.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria.** Sukaldaria behar da Tolosako taberna batean osatirala eta larunbat gauetan lan egiteko. 699 71 02 73.

■ **Zerbitzaria.** Zerbitzari lanetan eskarmentua duen neska gazte euskalduna, asteburuetan lan egiteko prest dago. 645 715 228.

■ **Irakaslea.** Kimikan lizentziatua naiz eta klase partikularak ematen ditut: matematika, fisika eta kimika. 637 18 08 58.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatu Tolosan. Eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autoerentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua. 678 26 76 57.

■ **Garajea.** Tolosako lurte auzoan 16 metro karratuko garaje itxia salgai. Interesatuek deitu 660 798 685 (goizez) edo 634 495 925 (arratsaldean) telefono zenbakietara.



27 ehiza postuak esleitu dituzte, bi asteburutan zehar egindako enkantean

Postu guztien artean 17.059 euro ordaindu dituzte ehiztariek; azaroaren azkenera arte erabiliko dituzte

Iñigo Terradillos Areso

Usoak eta birgarroak ehizatzaera doazen ehiztariek betetzen hasiko dira laster mendiak. Areso inguruko lurrak aproposak omen dira horretarako, eta hori dela eta, bertan dauden postuak oso preziozkoak dira. Ehiztari askok nahi izaten du bereganatu postu horietako bat, baina ez da hain erraza izaten. Izan ere, udalak enkantean jartzen ditu bertako 27 postuak. Bada, iragan asteburuan eta aurrekoan burutu zen enkantea, eta postu guztiak esleiturik geratu ziren.

17.059 euro ordaindu zituzten postu guztien artean, zergak eta BEZa barne. Pasa den urteko enkantearekin alderatuta, beraz, igoera egon da aurten, iazkoan 12.825 euro ordaindu baitzituzten ehiztariek. Aurreko urteetako enkanteekin alderatuta, baina, udaletik azaldu dutenez, diru gutxiago ordaindu da aurtengo enkantean.

27 postu horietan ere bada aldekoa. Izan ere, kokapen hobeak dute batzuk, eta horiek, noski, eskaera handiena izaten dutenak dira. Horregatik, gehien ordaintzen diren postuak izan ohi dira. Aurten go enkantean 2.684 euro izan da gehien ordaindu den uso postua.



Hilaren 17an egin zen postuen lehen enkantea, Areson. HITZA

Gutxien ordaindu dena, berriz, 183 euro izan da.

Pasa den urtekoan baino jende gehiago egon da aurten. Horrez gain, batzarrean hala onartu ostean, postuen hasierako prezioa igo egin dute. Udaletik azaldutakoaren arabera, bi horiek izan daitezke aurten diru gehiago ordaindu izanaren arrazoia.

Guztiak esleituta

Igaro den asteburuan egin zen bigarren enkantea, eta bertan behin betiko esleitu ziren enkantea ateratako ehiza postu guztiak. Enkantea bera, ordea, aurreko asteburuan, hilaren 17an hasi zen. Egun hartan, behin-behineko izaeraz geratu ziren esleituta postuak. Bakarra geratu zen hutsik edo jaberik gabe. Aurreko as-

tean zehar, ostiral gaua bitarte, sesteoa egiteko aukera egon zen. Hau da, behin-behineko esleipena zuten postuak berriro ere enkantera atera zitezkeen ehiztari batek postu horiengatik diru gehiago eskaini izan balu. 13 posturekin gertatu zen hori. Iragan larunbateko bigarren saioan, beraz, 13 horiek atera ziren berriro enkantera, eta horiekin batera, aurreko larunbatean hutsik geratu zen postua.

Prest dute, beraz, ehiztariek guztia ehizari ekiteko. Egunotan hasiko dira eskopetak eskuan eta begiak zerran jarriak dituztela. Modu honetan igaroko dituzte egunak azaroaren amaiera bitarte, ehiza denboraldia bukatzen den arte, alegia.

◉ leitzaldea@hitza.info

Bizidunentzat babes neurriak



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga
Biologoa

Bizidun espezie bat desagertzeko arriskuan dagoenean, gobernu eta administrazioek babes neurriak ipintzen dituzte martxan, zenbaitetan beranduegi den arren. Baina jendea berebiziko tripako mina egiten dio, txori bat edo "xomorro" bat babesteko gastatzen den dirutzak ikusteak, asko kezatu egiten dira ea txori batek horrenbeste merezi al duen eta ez ote litzatekeen hobe diru hori liburutegi bat edo ikastola bat egiten gastatzea.

Jendeak ez dakiena ordea, "xomorro" edo txori bat babesteko erabiltzen den dirutza hori ez dela txoriari zapata berriak erosteko erabiltzen edo "xomorroari" babes ofizialeko pisu bat eraikitzeke. Normalean, babes neurriak, babestu nahi dugun espeziea eta bere ingurua babesteko erabiltzen dira, honela, babestuko den espezieaz gain, ingurunea ere babesten da eta honekin batera beste ehunka espezie, izan ere, inguru horretan bizi baitira.

Adibide garbi bat Martin arrantzalea deritzon txori ederrean daukagu. Benetan liluragarria da txori txiki honek ibaietan nola arrantzatzen duen ikustea. Martin arrantzalea babesteko, ez gara txori bakoitzarengana banan-bana joango eta ahora janaria emango, baizik eta txoriak janari gehiago eskura izan dezan ingurunean aldaketak egingo ditugu. Honetarako, babestu nahi dugun espeziea, kasu honetan Martin arrantzalea, oso ongi ezagutu behar da: zer jaten duen, non mugitzen den, zein diren bere harrapa-

riak eta batez ere, habiak non egiten dituen.

Biologo on batek lan hau guztia egin ostean badaki Martin arrantzalea ibaian eta bere inguruko lurretan zehar mugitzen dela, badaki arraintxo txikiak jaten dituela, inguruko adar batean zain egon eta gezi baten moduan bere mokoarekin alderik alde ziztatuz eta badaki ere ibaien alboko lokatzeko paretetan sakonera handiko tunel bat eginez habiak eraikitzen dituela.

Hau jakinda, Martin arrantzalearen babeserako ardura duen biologoak, herriko politikariari edo funtzionarioari neurriak proposatzen dizkio. Garrantzitsua da Martin arrantzaleari janaria ez faltatzea, horretarako uren kalitateak oso ona izan behar du eta agian komeni da ibaian zehar harririk handiak ipintzea arraintxoak bertan babes eta ugaltzekin. Baita ere komeni da harrizko paretak eraiki ordez, ibaiko alboan lokatzeko paretak mantentzea eta bertako landareari hazten uztea Martin arrantzalearen habiak gordeta egon daitezkeen. Nahiz eta paretak gris polit eta garbia oso *eko* geratzen den bidegorriaren alboan eta noski, komeni da ere, ibaiko arratoi populazioa kontrolatzea Martin arrantzalearen habiak eraso ez ditzaten.

Beraz, Martin arrantzalea babesteko neurriak hartuz, ibaiko uraren kalitatea handituko da, bertako arrain populazioak gora egingo du eta agian arrantza egin ahal izango da. Lokatzeko paretak ezkatutzen dituen landare-dian zehar ehunka "xomorro" eta hauek jango dituzten txori ugari ibiliko dira, bidegorrian zehar txori mota ezberdinak ikusteko aukera emanez eta txorien mundu interesgarria jendearengana hurbilduz. Denbora igaro ahala, ibai horretan igel, suge eta arrarorak diren ugaztunak (Bisoi europarra, esaterako) agertzeko aukera handiak daude.

Urtean zehar ehunka eraikuntza egiten dira, Martin arrantzalea babesteko neurriek baino milioi bat aldiz gehiago kostatzen direnak eta onurak, milioi bat aldiz txikiagoak direnak. Bizidunak babestea ez da hain garestia, borondatea eta interesa dagoen heinean behintzat.

Eta zutabetxo xume honekin, beste ikuspuntu bat erakutsi badut, aste honetako helburua bete dut. Baina ikuspuntu gehiago nahi dituenak bioaniztasunetik@hotmail.com-era idatz dezala, gustu handiz emango dizkiot beharrezko azalpenak.



Martin arrantzalea. HITZA

Eskualdekoek ez dute Gpuntu finalaurdenetarako txartela lortu

Bertsolari Txapelketako final zortzirenetako laugarren saioan Muñoa, Iguaran eta Gorostidi aritu ziren

Erredakzioa Tolosaldea

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetako bi saio jokatu dira asteburuan, bata Eibarren, eta bestea Lazkaon. Hain zuzen ere, azken honetan, Lazkaokoan, eskualdeko hiru bertsolari aritu ziren, Unai Muñoa berrobitarra: Beñat Iguaran billabona-

tarra eta Adur Gorostidi abaltzizketarra. Ez zuten, ordea, finalaurdenetara pasatzeko txartelik lortu.

Lazkaoko Areria antzokian jokatu zen final zortzirenetako laugarren saioa. Aretorearen neurriko erantzunga izan zen bertsozaleen aldetik eta giro ederrean ospatu zen ekitaldia. Aretoa leporaino bete zen, eta dozenaka bertsozale sartu ezinda geratu ziren.

Beñat Lizaso izan zen puntu gehien batu zituen bertsolaria 480,5 punturekin. Saio osoan maila txukuna mantendu izanaren ondorioz lortu zuen emaitza. Nahikari Gabilondo (469) eta Iban

Urdangarin (461) geratu ziren ondoren. Azken hiru postuetan sailkatu ziren eskualdeko bertsolariak: Unai Muñoa 451 punturekin, Adur Gorostidi 432,5 punturekin eta Beñat Iguaran 415,5 punturekin. Eibarko saioari dagokionez, Nerea Elustondok 516 puntu lortu zituen, orain arteko puntuazioarik altuena.

Eskualdekoen parte hartzea

Eskualdeko bertsolarien hurrengo parte hartzea urriaren 8an izango da. Oihana Iguaran amasarra ariko da Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean, 17:30etik aurrera.

Bertako produktuez gozatu dute asteburuan

Lau azoka ospatu zituzten eskualdean pasa den igandean; nekazal produktuak izan ziren nagusi

Itzaia Urkizur

Azoka giroa izan da asteburuan, eskualdeko hainbat herritan. Goiatzen, Alegian, Asteasun eta Ibarren, bertako nekazal produktuekin antolatutako dituzte azokak, eta euskal gastronomia izan da jaun eta jabe. Bosgarren aldiz jaizian, Alegiako kultur batzordeak Nekazal Azoka antolatu zuen pasa den igandean. Alegiako nekazarien produktuez gain, abereak ikusteko aukera izan zen, eta baita hamaitzekoak dastatzeko ere. Goiatzen, berriz, XXII. Kultur Asteari amaiera eman zion ekitaldia izan zen azoka. Postuekin batera, sardina jatea izan zen.

Asteasuko azokan 70 postu jarrituz gero, gutxi, elikagai, artisau produktu eta mikologiako erakusketarekin. Arroz esne lehiaketan Lierri Ormazabalak eta Lida Elizaguirrek irabazi zuten. Azkenik, Ibarren, Hauspoa kultur elkarteak antolaturiko *Ibarri, azoka eta piperrak* jaia izan zen berrogeigun. Piperraren Euskal Herriko VII. Lehiaketa Gastronolikoan, piperrada atalean Xabier Mendizabal eta Jose Juan Ijurko donostiarrek irabazi zuten. Pintxoan lehiaketan, Ibarra Kirol Elkarteko Iñigo Olano eta Permin Zubillaga ibertarrak izan ziren garaileak.



Jende ugari bertaratu zen Goiatzko azokara. HITZA



Asteasuko azokan, landareen postu bat. S. LOPEZ



Alegian, barazkiez gain, beste hainbat produktu izan ziren. S. LOPEZ



Ibarriko azokan, bertako piperekin egindako pintxo lehiaketa. S. LOPEZ



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Mahala bi sorta

Mahala Berri baserria
Leaburu
Tel.: 943-57 07 24

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



3 Donostiako Aquariuma

3 lagunentzako
bina sarrera

www.aquariumss.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

2 Pagoa

Euskal Herri berriko
garagardoa

Olartzun
Tel.: 94 619-42 11 53

www.euskalherriko plaza.com/pagoa



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 TTAk

bi elastiko*

www.euskalherriko plaza.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54

Parte hartzeko bete behar duzu: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info (harpidedunen kodea, izena, herria, eta zinegotzaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz) Ez du hurrengo azokan, azkeneko eta onargarri gisa, nahiz duzun erabaki. Gertakariak onartzen ditugula adieraziz.

harpidedun
TXOKOA hitza

Irura



ZAHAR ETA GAZTE JAIETAN MURGILDU DIRA IRURAN

Pasa den ostiralean, bupinazarekin batera hasi ziren Irurako San Mielak, 18:30ean. Aurtien, lehenengo z, darroradaz antolatutako zuten, eta oso jendetsua izan zen.

haurrek, gazteek eta helduek parte hartu zuten. Larunbatean, berriz, haur jolasak izan ziren goizean, eta eguerdiko 13:00ak inguruan, herriko gazteek urteroko

dantza-soka egin zuten herriko plazan. Aurrezki lane-tan gizonetako aritu zen, eta atzeskua, berriz, emakumeetako izan zen. BERRITZAILEA: IZABELE

Tolosa



ALLIRI AUZOA JAIETAN

Lehenengo aldiz antolatutako dituzte aurtien, Tolosako Alliri auzoko jaiak. Pasa den larunbatean ospatu zituzten, eta auzo bakoitza izan zen ekitaldi bakoitza. Bakoitza aurtien, ordea, gazteetakoek buruhandien aurretik korrika jolasteko aukera izan zuten. IZABELE

Villabona



BIGARREN ESKUKO AZOKA

Mugikortasun Astearen barruan, beste urte batez, bigarren eskuko azoka izan zen, larunbatean, Villabonako Berdura Plazan. Mota askotako bikilietez gain, trikiak, haurrak auzoan bidaiatzeko aukiak, kasikoak eta tximindularen amopak ere eskuragarri izan ziren. IZABELE

Tolosa



LACUESTAK URREZKO MASKORRA

Isaki Lacuesta kataluniarak irabazi du aurtengo Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra. Sail ofizialean aurkeztu zuen *Los Pasos Dobles* filmak eman dio saria, eta epaimahaiaren iritzia desadostasunak sortu dituen arren. Lacuesta pozik agertu zuen bere burua Kursalean. Ama Tolosara du Isaki Lacuesta, eta pasa den astean *La noche que no acaba* filma eskaini zuten Leidorren. Irudian, bere bikote eta gidolaria den Isabel Campos-ekin ageri da, Leidor aretoan. BARRIO GARCIA

Leizta



BEIROREN OMENALDIA LEITZAN

Duela 9 urte ETAK Leitzan hil zuen Juan Carlos Beiro guardia zibilaren omenaldia ospatu zuten, larunbatean, Leitzan. Horren harira, Guardia Zibilak egun osoan zehar ibili ziren Leitzan. Francisco Jose Alcanaz buru duen Voces Contra el Terrorismo taldeak desialdia zabaltzeko Leitzara bertaratzeko, eta 50 bat lagun elkartu ziren. Yolanda Barcinak eta Silvestre Zubiturrek bat egin zuten omenaldiarekin, atentatua gertatu zen lekuan. GAZTAK: IZABELE

Kirolak

↓ Kirol emaitzak

PILOTA

**GIPUZKOAKO EZKER
HORMA TXAPELKETA**
Eskuz banaka, kadeteak
Tartaloetxe-Intxurre 6-22

Eskuz binaka, kadeteak 1. maila
Aurrera Saiaz 1-Oiarpe 1 22-14
Azkoitia-Aurrera Saiaz 2 13-22

Eskuz binaka, kadeteak 2. maila
Oiarpe-Aurrera Saiaz 1 7-22
Tartaloetxe-Aurr. Saiaz 2 9-22
Arrasate-Intxurre 13-22

Eskuz banaka, jubenllak
Aurrera Saiaz-Goierri 22-12

Eskuz binaka, jubenllak 1. maila
Añorga-Aurrera Saiaz 1 17-22
Aurr. Saiaz 3-Gazteleku 22-8
Intxurre 1-Oiarpe 9-22
Intxurre 2-Hernani 1 17-22

Eskuz binaka, nagusiak 3. maila
Aurrera Saiaz-Antigua 2 22-3
Intxurre 1-Usurbil 2 22-10
Intxurre 2-Alde Zaharra 22-5
Intxurre 1-Usurbil 2 22-10

Eskuz binaka, nagusiak 2. maila
Aurrera Saiaz 1-Oiarpe 22-10
Aur. Saiaz 2-Eskoriatza 22-8
Intxurre-Lagunak 22-12

Eskuz binaka, nagusiak 1. maila
Lagunak 1-Aur. Saiaz 1 22-17
Eibar-Aurrera Saiaz 2 3-22
Aurrera Saiaz 3-Antigua 22-10

**Eskuz binaka, nagusiak
ohorezko maila**
Ilunpe-Aurrera Saiaz 1 22-14
Aurrera Saiaz 2-Bergara 22-7

AIZKORA

**NAFARROAKO II. MAILAKO
TXAPELKETA**
Finala
1. Julen Kañamares 18:23.02
2. Juan Jose Erdozia 18:32.37
3. Xabier Mindegia 18:49.90
4. J. Antonio Loiarte 18:58.96
5. Arkaitz Olano 20:20.02

MENDI DUATLOIA

**IBARRAKO I. MENDI
DUATLOIA**
Gizonezkoak
1. Jon Erguin 1:19:21
2. Luis Mari Urizar 1:21:07
3. Endika Garzia 1:22:14

Emakumezkoak
1. Olatz Mujika 1:43:45
2. Maite Murgia 2:20:04

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL B MAILA
Ibarra-Sasikoa 3-2
Egintza Transportes
Lakuntza-Meatzari 3-3

EUSKAL LIGA

Tolosala-Kurutziaga Ikast. 10-1
Sasikoa B-Tolargi 1-3

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOA
Oiartzun-Tolosa 1-0

Mendi duatloiak «harrera oso ona» izan du ikusleen eta parte hartzaileen artean

Jon Erguin izan zen irabazlea, eta bigarren Luis Mari Urizar billabonatarra helmugaratu zen

Imanol Garcia Ibarra

Lehenengo aldiz antolatu dute Ibarra mendiko duatloia, eta antolatzaileak «oso gustura» daude probak izandako harrerarekin. Antolatzaile lanetan aritu den Luis Lasak azaldu duenez, «harrera oso ona izan da bai ikusleen artean eta baita parte hartzaileen artean ere». Euskal Herriko I. Mendi Duatloi Zirkuituaren lehenengo proba izan da Ibarra.

Jon Erguin beasaindarra izan zen lehenengoa helmugan, 1:19:21eko denborarekin. Bigarrena Luis Mari Urizar billabonatarra izan zen, 1:46ra, eta hirugarrena Endika Garzia, 2:53ra. Lehenengo herritarra Luis Lasa bera izan zen, hamabigarrena sailkapen orokorrean, 1:28:52ko denborarekin. Emakumezkoetan hiru parte hartzaile izan ziren eta bi rek bukatu zuten. Azkarrena Olatz Odriozola izan zen, eta bigarren Maite Murgia.

Irabazlearentzat denboraldiko lehen proba zen: «Neguko triatluneko aritzen naiz, eta horri begira parte hartu dut duatloian, prestatzen joateko. Denboraldia oraindik hasi gabe nago, baina uste baino hobeto sentitu naiz».



Duatloiaaren podioa; ezkerretik hasita: Endika Garzia, Jon Erguin, Luis Mari Urizar, Maite Murgia eta Olatz Odriozola. HITZA



Hainbat parte hartzaile, Zumardi Handitik gorako bidean. I. IURKIZU

Zirkuitua «asko gustatu» zitzaion Erguini: «Ikusi da lana egin dutela antolatzaileek. Giroa ere oso ona izan da, jende asko baitzegoen proba jarraitzen. Lasterketa polita izan da».

Lehenengo zatian, korrika egin behar zutena, hirugarren iritsi zen irabazlea. Gero, bizikleta gainean harrapatu zituen lehenengo biak eta eraso jo zuten.

Erguin eta Urizar probaren bu-

ruan jarri ziren. Errepidea aldaia beheara jartzen zenean, Erguinek alde egiten zuen, eta gorakoan, Urizar gerturatu egiten zen. Billabonatarra esan duenez, «Erguinek teknika hobea du eta aldaia beheara hori aprobetxatzen zuen».

Bigarren egin arren, Urizar «gustura» zegoen emaitzarekin: «Orain gutxi kolpea hartu nuen bizikletarekin, eta saihesta pixka bat minberatuta nuen. Proban atera, eta lehenengo zatian ez nintzen gaizki ikusi». Urizarrentzat ere ibilbidea «oso polita» izan zen: «Mendi bizikletarentzako nahiko azkarra da».

Animoak denentzat

Luis Lasa ibartarrak antolatzaile eta parte hartzaile moduan aritu zen proban. «Parte hartzaile gisa ibilbidea oso polita iruditu zitzaidan. Gainera jende asko zegoen ikusten eta guztiei asko animatzen zien», esan zuen Lasak. «Mendi lasterketetan aritzen naiz ni, eta ez nuen espero hain aurrean izatea. Bizikletaren artean, lankide batekin joan nintzen eta bere erritmoari eutsi ahal izan nion». Herrian parte hartzeak «beste motibazio bat» dela esan zuen: «Neke ahaztu egiten da, eta gozatu nuen proban».

Guztira 104 parte hartzailek bukatu zuten mendiko duatloia. Euskal Herriko I. Mendi Duatloiaaren lehen proba izan da, eta hurrengo Arriaranen izango da, urriaren 1ean.

Garaipen batekin hasi du denboraldia Lauburu taldeak

Larunbatean hasi zuten denboraldia ibartarrek; Durangoko Sasikoa taldearen aurka aritu ziren, etxean

Rebeka Calvo Ibarra

Gogotsu eta «urduri samar» hasi zuten larunbatean denboraldi berria Ibarra Lauburu areto futboleko taldeak. Etxean zuten hitzordua Durangoko Sasikoa taldearen aurka, eta azken momentuan izan bazen ere, 3-2 garaitu zuten talde bizkaitarra.

Ibartarrek, hala ere, Hirugarren mailan hasi dute denboraldia. «Kolpe handia izan zen. Bage-nekien posible zela jaistea, iaiztik zuzendaritza nola zegoen ikusten genuelako. Jende gutxi zegoen

lan egiteko, udaletxeak aurrekontua jaitsi zuen... Mailan gelditze-ko aukera izan dugu, baina diru kontuak direla medio, jaitsi egin gara. Mailan mantentzeko jokoa dugu, baina zoritxarrez gauza asko hartu behar dira kontuan, ez jokalarien maila bakarrik». argitu du Juan Manuel Zubelzu Txubel entrenatzaileak. «Goran 14 ekipa bakarrik daude, eta 16 talderentzat dago tokia, beraz, igotzeko aukera dago», gaineratu du.

Igotzeko, ordea, denboraldi ona egin behar dute, eta Txubelek uste du lortuko dutela: «Pauso bat atzera egin dugu, bai, baina orain ziur nago bi egingo ditugula aurrera».

Txubelek iaiz entrenatzeari utzi nahi ziola ere esan zuen, baina oraingoz jarraitu egin beharko duela dio. «Ez dago inor. Urte asko dira, eta urte betez edo utzi egin

nahi nuen, mailan mantendu edo ez. Laguntzeko prest nengoen, noski, baina beste maila batean aritu nahi nuen. Jokalarientzako mesedegarria izan zitekeela ere pentsatu nuen; beste gauza batzuk ikusteko. Baina Gipuzkoan titulua duten gutxi daude eta ez dugu errelebua lortu», dio.

Jokalariai

Denboraldi berrian hala ere, jokalarik aldaketak egon dira. Unai Labaka, Lander Camio, eta Loitzun Sanz beste talde batzuetara joan dira, eta Mikel Sanz atezainak utzi egin du. Atezain berri bat ere badute, Alegiako Beñat Murua, eta harrobiko jendea ere ekarri dute, Jokin Zaldia, esaterako.

Aipatu behar da, era berean, lau bat jokalarik Tolargi eta Lauburu jokatu duela. Une hone-tan 16 urte dituen Egoitz Ezeiza



Txubel entrenatzailea. N. LATABURU

ari da Ibarra taldearekin, baina denboraldian zehar txandakatzeko joango dira.

Iaz, Legorretako Jon Blanco ere bazegoen, baina urte txarra izan zuen lesio ugariarekin, eta aurtengo denboraldia «oso ondo» hasi duela dio entrenatzaileak.

Datorren hitzordua igandean bertan izango dute, urriak 2, Gernikan, Gora taldearen aurka. Ordua ez dute finkatu oraindik. Maila altuko taldea dela dio Txubelek, eta beraz, «erromka polita» dute aurretik ibartarrek.

Antonio Alustiza • Oñatiko Artzain Zakur Txapelketako irabazlea

«Lana eginez gero, berriro irabazi daiteke»

Imanol Garcia Areso

Bigarren aldiz jarraian lortu du Antonio Alustiza aresoarrak bere zakur Txikirekin Oñatiko Nazioarteko Artzain Zakurren lehiaketa. Txapeladunen arteko lehia izan da bertan, eta Alustizak bi zakurrekin aritu da. Bestea, Bat izenekoak, seigarrena izan da.

Bi aldiz irabazi duzu jarraian artzain zakurren txapelketa nagusia. Zer suposatzen du horrek?

Ilusio handia egin zidan. Lehengo urtean irabazi nuen aurreneko, eta kasualitatea ote zen pentsatu liteke. Baina ikusten da lana eginez gero, posible dela berdinak berriro irabaztea.

Nola joan zen txapelketa?

Lehenengo proban aurretik nint-

doan eta ikusi nuen aukerak nituela irabazteko. Bigarren proban ardiak barruan sartuz gero, aukera guztiak nituen irabazteko, eta hala gertatu zen.

Urduritu al zinen, irabazteko aukerak zenituela ikustean?

Beti izaten da zerbait pentsatua. Lehen urduritzen nintzen, baina orain ez hainbeste. Hori alde batera utzi eta tokatzen zaidan lan hori egitera joaten naiz. Ez da kasurik egin behar puntu kopuruei. Onena hori da. Hasten bazara pentsatzen aurretik zoazela... Tokatzen den lana egin ahal den hobe-
beken egitera joaten naiz.

Artzainak eta zakurrak parte hartzen duzue lehiaketan. Zeinek egiten du lan gehiago?

Lan zailena nik, eta lan gehiena



AGUSTIN GOENAGA

zakurrak. Lan guztia egin nuen aginduetara, eta horri ematen zaio garrantzi handiena.

Lotura oso estua izan behar duzue...

Berak badaki zer egin behar

duen, baina ardiak jokobidea ikusita, nik maneiatu behar dut.

Beste zakur batekin lehiatu zinen, Txikiren alaba, Bat. Nola arituzen?

Oso ondo egin zuen lan guztia.

Bukaeran, ardiak ez ziren beharreko lekutik pasatu. Nire ustez agindu nion zakurrari, baina lagunek esan zidaten ezetz, ez niola agindurik eman. Gaztea izateko oso ondo egin zidan kasu. Gustura gelditu nintzen zakurrekin.

Genetikak zerikusia du alaba ere ona izateko?

Ez da bestearen umea delako. Hau horrela ateratzen da, baina behar bada, besteak ez dira horrelakoak aterako.

Txikitatik hezitzen dituzu zakurrak?

Etxean jaiotakoa da. Zakurrek lanean hasteko gogoia hasten zaizenetik aurrera, egunero egiten dute zerbait.

Ama jartzen diozu gidari lanetan?

Aurrenetik pixka bat, baina gero ez da ona biak batera ibiltzea. Nik ez ditut ibiltzen biak elkarrekin.

Berezko dohaina izango dute zakurrak, baina lana eskatuko du, ezta?

Aurrena behar du dohaina izatea, baina jakinda ez dira jaiotzen. Erakutsi egin behar zaie, eta hasieran pazientzia behar duzu.

36 zaldunek parte hartu dute Bedaio IV. Zaldi Raid-ean

Olaia Aristegi eta Leizure Alonso bedaiotarrak izan dira lehen eta bigarren sailkatuak

I. Garcia Bedaio

Eguraldi ezin hobean egin zuten Bedaio IV. Zaldi Raid Lasterketa. 36 zaldi hartu zuten parte, eta Bedaio Olaia Aristegi eta Leizure Alonso izan ziren lehen eta bigarren sailkatuak. Ondoren Josune Unanue eta Nagore Larralde sailkatu ziren hirugarren eta laugarren, hurrenez hurren. Partaide horiek sari berezia izan zuten Albaitacken eskutik eta parte hartzaile guztiek Alegi pentsuak eskainitako pentsu zakua eraman zuten. Gernika, Lesaka, Leizura, Irun, Errenteria, Oiartzun, Zubieta, Lasarte eta Tolosaldeko beste hainbat herritik joan ziren zaldunak. Albaitarien azterketa pasatu ondoren, goizeko bederatzia aldera hasi ziren lasterketa-ko irteera puntutik pasatzen.

Bi fasetan banatu zuten antolatzaileek lasterketa, eta ordu bat eta 16 minutu behar izan zituzten gutxienez parte hartzaileek zirkuituko 15 kilometro gogorak burutzeko. Bedaio paisai eta pagadi ederrak badira, eta aldapak ere bai. Ondoren, giro ederrean, Abaetxe jatetxean zaldi festa jarraitzeko asmoa zutenek bazkari eder bat izan zuten.

Artubi elkarteak kideek esker-
rarak eman dizkiete parte hartu



Ilgandean egin zuten raid-aren une bat. HITZA

duzen guztiei. «Hurrengo urtean errepikatze asmotan geratu dira», elkarerik azaldu dutenez.

«Nola ez, bertako laguntzaile

guztiei ere eskerrak ematen dizkiegu, bedaiotarrik gabe ez baita-
go honelako zaldi lasterketa bu-
rutzerik eta».

Arkaitz Olano: «Egun txarra izan nuen»

Faboritoa izan arren, bosgarren amaitu du aizkolari leitzarrak Nafarroako II. Mailako Txapelketa

I. Garcia Leizura

Arkaitz Olano leitzarrak bosgarren egin du Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketan, eta beraz, finaleko azken postuan sailkatu da. «Egun txarra izan nuen», azaldu du Olanok. «Egurak ez ziren onak, eta ez nintzen ondo aritu, indarririk gabe. Korteak bukatu behar izan nituen eta horrek denbora kentzen du». Pare bat adar begi ateratzen zitzaizkion enborretan, baina hori aitakia ez zela esan du.

Bost finalistetatik faboritoeta-

ko bat zen leitzarra. Julen Kañamaresek irabazi zuen txapelketa, eta bera eta Juan Jose Erdozia, bigarren egin zuena, lehenengo mailan ariko dira. «Esperantza banuen lehengo mailara igotzeko txartela lortzeko», azaldu du Olanok. «Faborito ni nintzela esaten zen, eta horrek presio pixka bat eragin zidan». Ez zen gustura gelditu bere lanarekin leitzarra. «Nire maila emanez gero aurre-rago egongo nintzen, baina ez zen posible izan». Irabazlearengandik bi minutura amaitu zuen proba.

Hurrengo txapelketa Asteasun du Olanok. Euskal Herriko II. Mailako Txapelketa jokoan izango da, urriaren 9an. «Presio gutxiago izango dut orduan. Maila handia izango da bertan. Otaño ibartarra, Rekondo leitzarra... ariko dira», dio.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



≈ 29°
≈ 19°

GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	28°
HOTZENA	17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia XIV. HITZA Argazki Lehiaketa



ZORTZI ARGAZKI FINALISTAK AUKERATZEKO TXANDA

Alegiako Jon Aizpuruak dioenez, Euskal Herrian «oraindik ezagutzeko toki zoragarriak ditugu inguruan», bera Sakonetako hondartza izan zen udan eta «aho zabalik» utzi zuen. Edurne Zubizarreta, aldiz, Alpeetan izan zen, «Venezia deitzen dioten Annecy-n», hain zuzen. Miren Tijerok ere lehiaketan parte hartzeko argazkia bi-

dali du: «Uda honetan Lanzarote egon naiz eta Timanfaya ateratako argazkia aukeratu dut. Bapora Geyser bezala ezagutzen den proba ikusi daiteke argazkian. Burdinazko hodiak 10 metroko sakonera du eta bertan 500 gradu daude. Ura hoditik bota eta 2 segundora geysera ateratzen da». Gogoratu irudiak bidaltzeko az-

ken eguna ostirala izan zela, eta orain epaimahiaren txanda da. Asteazkenean, hilaren 28an, argitaratutako ditu HITZA zortzi argazki finalistak. Era berean, jasotako argazki guztiak tolosaldea.hitza.info webgunean XIV. HITZA Argazki Lehiaketa atalean daude ikusgai. Eskerrikasko parte hartzaile guztiak! JA-EZ-MT.

Agurrak



Zorionak!

Oier Gastesi Tolosa, 6 urte.
Zorionak etxekoan partetik
eta batez ere, Uxue eta
Eneritzen partetik.



Zorionak!

Urki Garro Ugartemendia (Irura). Atzo 4 urte bete zituen.
Zorionak Alaia, aita eta ama txoren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

●● **agurrak**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C. I.
Korreo kalea, 20.
943 67 60 13.
■ **Leitza.** Erbiti, O.
Lizarraga kalea, 7.
112.

HITZA ez du bere gain
hartzen egunkarian
adierazitako esanetan eta
iritzien erantzukizunik.

**Bertako informazioari
bertako produktuak**

**Egin HITZAren
harpidedun**
urriaren 31 baino lehen
eta jaso
artxai gazta,
Idiazabal
jatorri izenarekin,
OPARI



hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Hitzaren harpidedunen artean,
azaroaren 2an,
asteburu bat zotz egingo dugu
Aireberria Hotelaren eskutik.

www.aireberria.com



*Saria 2011n erabili behar da.